

Zortzi liburutegi publikoetan BERRIA eta 'Gara' ez erostea erabaki du Iruñeko Udalak

Erabaki horren bitartez informazioa zentsuratu nahi dela salatu du Asnabi Nafarroako Liburuzainen Elkarteak

ERREDAKZIOA. IRUÑEA

Iruñeko zortzi liburutegi publikoetan BERRIA eta Gara egunkariak ez erostea erabaki du Paz Prieto Iruñeko Kultura zinegotziak. Barañainen (Nafarroa) ere gauza bera ebatzi zuen joan den otsailean Pablo Gomez udalerriko Kultura zinegotziak.

Bi udalek hartutako erabaki hori gogor salatu du Asnabi Nafarroako Liburuzainen Elkarteak. Hala, profesionalek duten ikuspuntua helarazteko, 167 liburuzain nafarrek sinatutako eskutitza kaleratu du elkarteak. Iruñeko Udalak hartutako erabakia informazioa zentsuratzeko tresna garbia dela salatu dute.

Hala, lau egunkari soilik izango dira irakurgai Iruñean dauden zortzi liburutegi publikoetan. Iritzi askatasunaren kontrako eraso gogorra da, liburuzainen ustez. Eskutitza sinatu dutenen arabera, Udalak liburutegi publikoei ematen dien sostengu ekonomikoari esker eskumena du arautegiak zehazteko, liburutegiak antolatzeke, plangintzak egiteko eta azpiegiturak eratzeke. Gu, liburutegiko langileok, informazioaren bitartekariak besterik ez gara gaur egungo informazioaren gizarte honetan. Liburutegietako ateak irekitzean, ideologia eta pentsamendu erlijiosoak eta kulturalak kanpoan uztea ezinbestekoa dela argi utzi dute eskutitzean. Udalak ez dezala inposatu bere ideologia, askatasunaren eta ezagutzaren ateak ixten baititu.

Liburutegietan lau egunkari soilik erosteko erabakia despotismo ekintza da, Udalarekin bat ez datozen iritziak tokirik gabe utzi nahi baitituzte, diote liburuzainek gutunean. Hala ere, garbi utzi dute, ez dagoela akatsetatik salbu dagoen erabakirik.

Dena den, 1994an Unescok liburutegien inguruan ebatzitako definizioa gogorarazi dute liburuzainek: Liburutegia informazioaren gunea da, bertan, erabiltzaileak era guztietako ezagutza eta informazioa aurki dezake. Horren harira, 2004an Nafarroako Gobernuak martxan jarri zuen Liburutegien Legea ere aipatu dute: Komenigarria da herritarrek informazioa askatasun osoz jasoko dutela bermatzea. Hori guztia ez dela ziurtatzen salatu du Asnabik beste behin ere.